

**ELAREN IRITZIA ENPLEGU TRANSFERENTZIA ETA EUSKO
JAURLARITZAREN GARDENTASUN EZA DELA-ETA**

2009 azaroaren 30a

I- ELAREN PROPOSAMENA EUSKO JAURLARITZARI (2009KO EKAINA)

Joan den ekainean izandako bileran ELAk Patxi Lopez lehendakariari agiri bat eman zion; beronetan Eusko Jaurlaritzari hainbat proposamen egiten zitzaion, eta horien artean zegoen oraindik transferitu gabeko enplegu eta prestakuntzari buruzko eskumenen inguruko aipamen bat. Zer eskatzen genuen?

1. Informazioa jasotzea eta parte hartzeko aukera izatea Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren posizioei buruz.
2. Eskumenen esparrua aintzat hartzen ez duten transferentziarik ez onartzea. Horrek zer esan nahi du?
 - Politika aktibo eta pasiboak transferitu behar dira.
 - Enplegu, prestakuntza, ikuskaritza edota lan-osasunaren inguruko politikak zein ereduren arabera gauzatzen diren EAEn bertan hartu beharreko erabakia da, eta ezin da onartu eskumenik baldin eta estatuan erabakitako eredia ezartzeko baldintzapean badator.
 - Transferentzien diru-sarrerek (enplegua, prestakuntza, lan-osasuna, gizarte-segurantza...) gai bakoitzari dagozkion funtsekin batera etorri behar dute, gai hauekin lotura duten kotizazio sozialak barne.

II- GARDENTASUN EZA ETA AKORDIOAREN IRAGARPENA

Eusko Jaurlaritzak ez ditu eskari hauek aintzat hartu; ez dio ELAri informaziorik eman, ez bera, ez Espainiako Gobernua transferentziari buruz zein posizio duten. Informazio eta gardentasun eza oso larria da, eta gobernuen jokabide antidemokratikoa islatzen du langileongan eragin zuzena duen gai batean (enplegu eta prestakuntzaren inguruko eskumenak).

Eusko Jaurlaritzak iragarri zuenez, 2010ko urtarrilaren 1ean enplegu-politika aktiboak EAEn esku uzteko akordio bat izango zen, baina ez zuen besterik zehaztu. ELAk aurreratu zuen hori ez zela bat ere pozgarria; aitzitik. Akordio horri buruzko informaziorik ez emateaz gainera, Espainiako Gobernuak tinko eusten dio bere jarrerari enplegu eta prestakuntzaren inguruko eskumenei dagokienez:

- Eskualdatuko den bakarra enplegu-politika aktiboak dira; uko egiten zaio politika pasiboak transferitzeari (langabezia prestazioak).
- Enplegu eta prestakuntza eskumenak EAEn transferitu, baina soil-soilik estatu mailan erabakitako politikak betearazi edo kudeatzeko.
- Ez du onartzen EAEnko administrazioak gai horiekin lotutako kotizazio sozialak jasotzerik, ezta bildutako dirua EAEn esku uztea ere.

Aurreko beste Jaurlaritzak inoiz ez du onartu eskumena Espainiako Gobernuak transferitu nahi zuen bezala. Ezta Lan Saila PSOEn esku egon zen garaian ere.

Ikusirik Eusko Jaurlaritzak ez duela informaziorik ematen, gure susmoa da bere posizio politikoa aldatu egin duela. Estatuaren betiko tesiak onartu dituela berretsiko balitz, Jaurlaritza autogobernuaren defentsan atzera egiten ariko

litzateke, eta EAEn beharrezko den enplegu politika egitea baztertuko luke, estatuan erabakitako politikak betetzea beste egitekorik gabe. Horrek, gainera, esan nahiko luke enplegu-politika ezgauzak kudeatzen aritzeko prest leudekeela, espainiar estatua langabezia kopurutan Europako puntara eraman dituzten politikak alegia.

EAJk eta Gobernu espainolak hitzartutakoaren arabera, "transferentzia hau 2010ko iraila baino lehenago gauzatuko balitz, aurrez Kongresuko EAJren taldearekin adostu beharko litzateke"; honek ez du zinezko arazoa konpontzen, izan ere, hoberenera jota estatuko gobernuak eta Jaurlearitzak iragarritako eguna hilabete batzuk atzeratzea ekarriko bailuke, baina horrek ez du inondik ere bermatzen transferentzia behar bezala egingo dela. ELAren iritziz arazoa ez da epe kontua, transferentzia ere duan baitatza.

Gogoratu beharra dago, bestalde, transferentzia ezkutuan bideratu nahi horrek eragina duela ere enplegu eta prestakuntza gaitan administrazioan diharduten langileengan, euren lan-eskubideak eta homologazioa jokoan dagoelarik.

III- ESTATUKO ENPLEGU-POLITIKAK: ESTATUTU HUSTUA, ZENTRALIZAZIOA ETA ELKARRIZKETA SOZIALA

Enplegu eta prestakuntza eskumenekin gertatutakoak argi uzten du Espainiako Gobernuak EAEko estatutu-markoa nola hustu duen. Behin eta berriz ukatu du transferentzia Estatutua aintzat hartzeko moduan egitea.

Azken urteetan enplegu-politiken esparruan atzerakada zentralista bat gertatu da, prestakuntzaren gaineko lege eta hitzarmenen bitartez eskumenak zentralizatu egin baitituzte.

Hori guztia gertatzen zen bitartean, gaiok apurka espainiar "elkarriketa sozial" delako horren osagai bihurtu dira; asmo nagusia zentralizatzea izanik, lan-merkatuko bitartekaritza eta prestakuntzan erabakia elkarriketa hortan parte hartzen duten erakundeen esku jarri dute, eta gainera esparru honetara bideratutako baliabide ekonomiko publikoen zati handi bat erabakitzen dutenek beren buruari ematen diote. Horrela, politika egokiak aplikatu ordez beste interes batzuri eman diete lehentasuna, enplegua sortu edo gizarteko beharrezkoen araberrako prestakuntza-sistema garatzearekin inongo zerikusirik ez duten interesak.

IV- LANBIDEREN SORRERA

Eusko Jaurlearitzaren 2010ko aurrekontu-proiektuetan xedapen gehigarri baten jasota dagoenez, Lanbide-Enplegurako Euskal Zerbitzua zuzenbide pribatuko herri-erakunde gisa sortuko da, bere esku uzten diren enplegu-politikak kudea ditzan. Lanbiden sartuko lirateke gaur Eusko Jaurlearitzak politika horietarako

dituen bitartekoak (Egailan barne) eta estatuko Enplegu-Zerbitzu publikotik transferitzen direnak.

Lanbideren sorrerari dagokionez, ELAk ez du onartzen aurrekontuen gehigarri baten bidez egiterik, hau ez baita bide normala, Kontrol Ekonomikorako Bulegoak dioen legez, 2010ko Aurrekontu orokorren legegaiari buruzko txostenean. Horrela jokatzearen helburua eztabaida saihestea da, enpleguari buruzko lege batean aztertu eta eztabaidatu beharko litzatekeen gaia izanagatik.

Edukiari buruz, ELAk gaizki irizten dio Lanbide zuzenbide pribatuko herri-erakunde legez sortzea eta ez organismo autonomo moduan, honela zuzenbide publikoaren (zuzenbide administratiboaren) esparruan bailegoke. Erabaki honen ondorioak garrantzitsuak dira hainbat arrazoi medio:

- Pertsonala kontratatzeko modua ez da hain gardena. Jaurlaritzaren lehentasuna Lanbiderako laboralak hartzea da. Zuzenbide pribatuko herri-erakundeak berme eskasagoa eskaintzen du langileak kontratatzerakoan berdintasun, meritua eta gaitasun printzipioak aintzat hartuko direla. Hain zuzen, Enplegu sailburuak berak esan du zuzenbide pribatuko formula honekin langileen kontratazioa era "malguagoan" egingo dela.
- Enplegu-zerbitzuen funtzioak garatzerakoan kontrola ez da hain zorrotza izango. Batetik, administrazioak herri-erakundeetan erakunde autonomoetan baino kontrol aukera txikiagoa dauka, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak sarri esan izan duenez. Enplegua gai garrantzitsua delarik, utzikeria hau Eusko Jaurlaritzaren aldetik arduragabekeria handia da, lanik gabe daudenek zerbitzu publiko batera iristeko duten aukera berdintasunaren kaltetan baitoa.
- Enplegu-politikek zerikusia dute prestakuntzarekin, orientazioarekin, lan-merkatuko bitartekaritzarekin eta beste zenbait puntu garrantzitsurekin. Esparru hauetan praktikan diru publiko finantzatzutako zerbitzuak kudeatuz etekina lortzeko asmotan dabilzan gero eta enpresa eta erakunde gehiagok parte hartzen dute, eta zerbitzuok berez administrazioen esku egon beharko lukete. Lanbide zuzenbide pribatuaren arabera antolatuta, eta ez arlo administratiboan, enpleguarekin zerikusia duten esparruetako azpikontratazioa eta esleipena ez da gardena izango. Honek era arbitrarioan erabakitzeak aukera ematen dio administrazioari.

V- KONKLUSIOAK

ELA konklusio hauetara iritsi da:

1. Eusko Jaurlaritzari 2009ko ekainean egindako proposamenei eusten diegu (agiri honen lehen atalean daude jasota).
2. Jaurlaritzari lehenbailehen bilera bat egitea eskatzen diogu transferentzia hauei buruz hitz egiteko.
3. Erretiratu egin behar da 2010ko aurrekontu legegaietik bigarren xedapen gehigarria, Enpleguaren Legean jaso behar diren edukiez gizaratean

eztabaida bati ekiteko. Horien artean legoke Enplegu Zerbitzu Publikoa erakunde autonomo legez arautzea, zuzenbide administratiboaren baitan eratu dadin eta langileen eskubideak bermatuta geratzeko moduan.